



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2022ko Azaroa

**ANTIBIOTIKOEKIKO ERRESISTENTZIAREN AURKAKO PLAN NAZIONAL BERRIA
2022-2024**

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

**COVID-AREN AURKAKO mRNA TXERTOAK: HILEKO ODOLJARIO UGARIA IZATEKO
ARRISKUA**

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA. AEMPS-EN ALERTAK
Segurtasun Oharrak: JAKen inhibitzaileak, Ibrutinib eta Krizotinib

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK
AEMPSen hileko segurtasun-buletin berria

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

GLP-1 ANALOGOAK HORNITZEKO ARAZOAK

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

ERREZETAN AGINDUTAKO MEDIKAMENTUEN HILEKO BERRITASUNAK
Aldatu dira pediatriako inhalazio-ganberen finantzaketa-baldintzak

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

HORNIDURA-GABEZIAK ETA HORNIDURA BERREZARPENAK

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

**ANTIBIOTIKOEKIKO ERRESISTENTZIAREN AURKAKO PLAN NAZIONAL BERRIA
2022-2024**

Antibiotikoen erresistentziaren aurkako Plan Nazional (PRAN) berria argitaratu da 2022-2024 aldirako. Plan horrek datoen bi urteetarako lan-helburuak ezarri ditu, eta antibiotikoen erresistentziaren problematikari heltzen dio, sei ildo estrategiko edo ekintza-ildo oinarri hartuta. Horiek guztiak "One Health" kontzeptuan oinarritzen dira. Kontzeptu

horren arabera, gizakien osasuna, animalien osasuna eta ingurumena elkarri lotuta daude eta sektore desberdinen ahalegin isolatuak ez dira nahikoa erresistentziaren arazoari aurre egiteko.

PRAN deritzon planean honako ekintza hauek beharrezkotzat jotzen dira:

- zaintza-sistemak sendotzea, Osasun Publikoko legerian Antimikrobianoen aurkako Erresistentziaren Zaintza Nazionaleko Sistema txertatuz
- Autonomia Erkidegoetan osasun-asistentziarekin lotutako infekzioak zaintzeko sistemaren ezarpena osatzeko lanean jarraitzea
- Esku-higienearen programa behar bezala ezartzeko ekintza estrategikoak gauzatzea
- hobekuntzak ezartzea ospitaleko adierazleen eta kontsumo-mapen tresnan
- zentro soziosanitarioetan lan-esparru bat egitea
- laneko ekintza espezifikoak garatzea, osasuneko beste profesional batzuekin lankidetzan, hala nola erizainekin eta odontologoekin

Plan osoa kontsulta daiteke [hemen](#) klik eginez.

[HASIERA itzuli](#)

2

COVID-AREN AURKAKO mRNA TXERTOAK: HILEKO ODOLJARIO UGARIA IZATEKO ARRISKUA

Ebaluazio-prozesua amaitu ondoren, PRACek ondorioztatu du arrazoi nahiko dagoela Comirnaty[®] eta Spikevax[®] mRNA txertoak hilekoaren odoljario ugariarekin erlazionatzeko.

Ez dakigu zein maiztasunarekin ager litekeen, eta identifikatutako kasuek, batez ere, **hilekoaren odol-galera ez-larriak eta iragankorrak** deskribatzen dituzte.

Ez dago ebidentziarik iradokitzen duenik hilekoaren alterazio horiek eragina dutela emakumearen ugalketan eta ugalkortasunean.

AEMPSen segurtasun-oharra (MUH (FV), 7/2022) kontsulta daiteke [hemen](#) klik eginez.

[HASIERA itzuli](#)

3

MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA. AEMPS-EN ALERTAK

Janus kinasaren inhibitzaileak hanturazko gaixotasun kronikoetarako (Abrozitinib, Barizitinib, Filgotinib, Tofazitinib, Upadazitinib): kontrako erreakzio larrien arriskuak minimizatzeko gomendioak (MUH(FV), 08/2022)

PRACek trastorno inflamatorioetan erabilitako JAKen inhibitzaileen onura-arrisku balantzea ebaluatu du, eta ondorioztatu du MACE, ZTE, neoplasia gaiztoen, infekzio larrien eta kausa guztien ondoriozko hilkortasunaren arriskua handitzea, aldezturik Tofazitinibekin artritis erreumatoidean egindako ORAL Surveillance azterketan identifikatua, klase-efektutzat hartu behar dela JAKen inhibitzaile guztientzat. Gainera, PRACek ondorioztatu du gaixotasun erreumatologikoetarako eta ultzeradun kolitiserako tratamendu horiek jasotzeko hautagai diren pazienteak antzekoak direla arrisku-faktore basalei dagokienez.

Aurrekoa oinarri hartuta, honako hau gomendatzen du:

-
- 65 urte edo gehiago dituzten pazienteetan, paziente erretzaile edo erretzaile ohietan eta arrisku kardiobaskularreko beste faktore batzuk dituztenetan edo neoplasiak garatzen dituztenetan JAKen inhibitzaileak ahal den neurrian saihestea, eta paziente horientzat alternatiba terapeutiko egokirik ez badago, dosia murriztu beharko da
 - bereziki zaintzea arestian aipatutakoez bestelako ZTE arrisku-faktoreak dituzten pazienteak
 - aldizkako azterketa dermatologikoa egitea Janus kinasaren inhibitzaileekin tratatutako paziente guztiei

Ibrutinib (Imbruvica®): bihotz-gutxiegitasunaren eta arritmien arriskua gutxitzeko erabilera-gomendio berria (MUH(FV), 09/2022)

Ibrutinibekin tratatutako pazienteen saiakuntza klinikoan multzo bat ebaluatu ondoren, PRACek ondorioztatu du beharrezkoa dela arriskuei buruzko informazioa eta Ibrutinib erabiltzeko gomendioak eguneratzea honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Ibrutinibek bihotzeko arritmia eta bihotz-gutxiegitasun larria eragin ditzake, eta ohikoagoak izan daitezke ECOG 2 egoera funtzionala edo handiagoa duten pazienteetan, bihotz-komorbilitateak dituztenetan edo adineko pazienteetan
- Ibrutinib bidezko tratamendua hasi aurretik, pazientearen aurrekari klinikoak eta bihotzeko funtzioa zehatz-mehatz baloratu behar dira
- tratamenduak irauten duen bitartean, zaindu egin behar da bihotzeko funtzioaren narriadura iradokitzen duten zeinuak edo sintomak agertzen diren
- bihotzeko kontrako erreakzio horiek agertuz edo errepikatuz gero, medikamentu hori maneiatzeari buruzko gomendio berriak ezarri dira; besteak beste, dosifikatzeko gomendioak

Krizotinib (Xalkori®): pediatriako pazienteen ikusmen-nahasmenduak zaintzea (MUH(FV), 10/2022)

Krizotinib (Xalkori®) duela gutxi baimendu dute 6 eta 17 urte bitarteko pediatriako pazienteetan zelula handien linfoma anaplasiko (LACG) sistemikoa tratatzeko, berriz gaixotzean edo errefraktarioan, ALK-rako positiboa, edo tumore miofibroblastiko inflamatorio (TMI) eraztezin errepikakorrean edo errefraktarioan, ALK-rako positiboa.

Krizotinib bidezko ikusmen-nahasmenduak paziente helduengan lehendik ezagunak ziren kontrako erreakzioak ziren, eta orain paziente pediatrikoetan ere identifikatu dira. Antzeman diren ikusmen-sintoma ohikoenak ikusmen lausoa (% 24), ikusmen-nahasmendua (% 20), fotopsia (% 17) eta beirakararen euli hegalaria (% 15) izan dira.

Paziente pediatrikoek ikusmen-nahasmenduak hautemateko eta jakinarazteko izan ditzaketen zailtasunak kontuan hartuta, kontrako efektu hori zaintzeari buruzko zenbait gomendio ezarri dira.

[HASIERA itzuli](#)

AEMPSen hileko segurtasun-buletina argitaratu da, abuztuari eta irailari dagokiona. Buletin horretan, farmakozaintzako datuak ebaluatu ondoren identifikatutako kontrako erreakzio berriei buruzko informazioa jasotzen da, medikamentuen fitxa teknikoetan eta prospektuetan txertatuko dena.

Buletinera sartzeko, egin klik [hemen](#).

[HASIERA itzuli](#)

AEMPSek hornidura-arazoak daudela adierazi du, asteko GLP-1en analogoen eskaria handitu delako; zehazki, Ozempic® (Semaglutida) eta Trulicity® (Dulaglutida), eta zenbait gomendio eman ditu hornidura-gabezia horrek eragin ditzakeen arazoak saihesteko edo arintzeko.

AEMPSen informazio-ohar osoa eskuragarri dago [esteka](#) honetan.

Trulicity® delakoari dagokionez, Lilly laborategiak adierazi du, une honetan, egungo pazienteentzako hornidura mantendu daitekeela, baina ezingo diotela eskaerari erantzun tratatutako pazienteen kopurua handitzen bada. Hori dela eta, alerta bat aktibatu da Presbiden, hornidura-arazoa konpontzen ez den bitartean Dulaglutidarekin tratamendu berriak hastea saihesteko.

Bestalde, Erresuma Batuko Lehen Mailako Arretako Diabetesaren Elkarteak (PCDS) proposamena egin du, adostutako dokumentu batean, hornidura-arazo horiek maneiatzeko estrategia bat bideratzeko, eta GLP-1en analogoen bidezko tratamendu-hasieretarako edo larrazalpeko semaglutidarekin tratamenduan dauden pazienteentzako alternatibak jasotzen ditu. Dokumentua eskuratzeko, klikatu [hemen](#).

[HASIERA itzuli](#)

Hauek dira 2022ko urriko berrikuntzak:

Octubre 2022		
	Cámaras de inhalación pediátricas	Cámaras de inhalación pediátricas: a partir del mes de noviembre sólo se financiarán mediante visado para asma infantil de 0 a 4 años y bronquiolitis de 0 a 2 años, cuando hasta ahora se financiaban en asma infantil y bronquiolitis de 0 a 4 años.

Indikazio murrizketa, finantzaketa edo preskribatzeko eta banatzeko baldintzak

2020ko urtariletik 2022ko urrira bitarteko berrikuntzak jasotzen dituen [dokumenturako](#) esteka.

[HASIERA itzuli](#)

Hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIA esanguratsuenak:

- **Amoxizilina** formulazio pediatrikoak: 250 mg/5 ml suspentsioa, 250 mg-ko zorroak, 125 mg/5 ml suspentsioa. Hornidura irregularra eta aldakorra.
- **Arteoptic®** 20 mg/ml 0,2 ml 30 unidosi (Karteolola). Oraingoz eskuragarri dago Arteoptic® Kolirioa.
- **Clotrimazol GineCanesmed®** eta **Gine-canesten®** baginako krema 20 mg/g, 20 g.
- **Clotrimazol Gine-Canesmed®** 100 mg 6 konp. baginal, **Clotrimazol Gine-Canesmed®** 500 mg konp. baginal. Alternatiba: momentuz, eskuragarri dago Gine Canesten 100 mg eta 500 mg-ko konp. baginal. (ez-finantzagarria).
- **Colirofta ciclopléjico®** 10 mg/ml Kolirioa (Ziklopentolatoa). Colirofta® unitate kopuru mugatua erabilgarri atzerriko medikamentuengatik. Alternatiba: Atropina erabiltzea.
- **Duac gel®** (Benzoilo peroxidoa/Klindamizina). Printzipio aktibo bakoitzaren erabilera bereiz baloratzea.
- **Dumirox® / Fluvoxamina EFG** 100 mg. Banaketa kontrolatua (100 mg). Alternatiba: 50 mg-ko aurkezpenak.
- **Duracef®** 250 mg/5 ml 60 ml-ko ontzia (Zefadroxiloa). Beste formulazio edo beste printzipio aktibo batzuen erabilera baloratzea.
- **Gonapeptyl Depot® 3,75 mg** susp. injehtagarrirako hautsa (Triptorelina). **Eskuragarri: Decapeptyl® hileko aurkezpena (3,75 mg).**
- **Lantanon® 30 mg 30 konp.** (Mianserina). Alternatibak: Lantanon 10 mg konp. edo beste antidepresibo batzuk erabiltzea.
- **Multaq®** 400 mg eta **Dronedaron** 400 mg EFG 60 konp. Amiodaronaren erabilera baloratzea.
- **Ozempic®** 1 mg sol. injehtagarria luma aurrekargatua (Semaglutida). Biltegiren batean dago eskuragarri. Alternatiba: eskuragarri dago 0,50 mg-ko luma. AEMPSek gomendioak ematen ditu ar-GLP-1 mailako hornidura-arazoak arintzeko. Ahal den neurrian, ez hasi tratamendu berririk. [Info gehiago buletin honetako 5. atalean.](#)
- **Trulicity® 0,75 mg eta 1,5 mg** sol. injehtagarria luma aurrekargatua (Dulaglutida). Oraingoz, eskuragarri dago biltegi batzuetan. [Info gehiago buletin honetako 5. atalean](#)
- **Simbrinza®** 10mg/ml+2mg/ml Kolirioa (Brinzolamida+Brimonidina).

Hornidura BERREZARPENAK:

- **Asacol®** 800 mg konp. (Mesalazina)
- **Betmiga®** 50 mg 30 konp. (Mirabegrón)
- **Duphalac®** 10 g ahotiko soluzioa 10 eta 50 stick (Laktulosa)
- **Lacerol HTA Retard®** 240 mg 20 eta 30 liberazio luzeko kapsulak (Diltiazem)
- **Yodafar®** 300 mcg 50 konp. (Potasio ioduroa)
- **Zaditen®** 0,25 mg/ml Kolirio monodosia (Ketotifenoa)
- **Zolpidem** 5mg, 30 Konp.

Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:.

- [Hornidura-gabezien taula](#): Presbiden, zuzenean taula honetara daraman "[Hornidura ezak](#)" botoi berria txertatu da.



-
- [CIMA-AEMPSn: AEMPSen medikamentuak hornitzeko arazoak](#)
-

[HASIERA itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia
ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus
Farmazialariak: Javier Martínez, Inés San José
Tfno.: 945 006752 / 945 006631



Argitalpen honetako edukia osatzeko, Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek sortutako hileko buletina egokitu da